

EUSKAL KULTURA IRAGANETIK ETORKIZUNAREN BILA

M. JOSUNE
ARIZONDO AKARREGI

BILBAO 700 III. MILLENNIUM FUNDAZIOA
ZUZENDARI NAGUSIA

Iragana eta etorkizunaren arteko zubigintzaren garrantziaz jabetuta, Jorge Oteizaren sententzia honekin hasiko naiz: *“quien innova, quien crea algo nuevo, hace como los remeros vascos, avanzando hacia adelante, pero remando de espaldas, mirando hacia atrás, hacia el pasado, para poder así reinventar sus claves”*.

Arrauna ohiko dugun arrantza-munduko

kide gehienok inoiz pentsatuko ez genuen gogeta irakurri behar izan genion Oteiza handiari konturatzeko egia zela *atzeak erakusten duela aurea nola dantzatu*.

Kulturaren oroimena da gaia. Euskal kulturarena alegia. Eta harira dator UNESCOk 1982an kultura erkidegoen defentsan egin-dako adierazpena:

“Kultura, gizatalde batek dituen ezau-gari espiritual, material, intelektual eta sentimenduz osatzen da. Kulturaren bidez jartzen ditugu ezbaian eta ebaluatzen ditugu gure lorpenak eta erronkak; kulturaren eskutik uler-tzen dugu gertakizunen esangura eta jasotzen

ditugu ezaugarri berriak. Kulturaren bidez sortzen ditugu hiritar soil gisa ditugun gaitasunak gainditzeko duten obra kolektiboak”.

UNESCOren definizioaren garapenean urrats pare bat emanez, honakoa baieztatzera ausartuko naiz:

Kultura, eraikuntza-prozesua da, jardunez burutzen eta zentzua hartzen joaten dena; giza taldeen barne kohesioaren eragile nagusietakoa bihurtzeko besteko sendotasuna izan dezakeena.

Kultura, tradizioaren eta berrikuntzaren arteko elkarriketaren emaitza da; erkidegoen balio tradizionalak etengabe berregin eta garai historiko bakoitzera egokitzeko topagunea, hain zuzen. Kulturgintza zabal batek ezin du, beraz, bazter utzi bere iragana, bere oroimena, alegia.

Egun bizi gaituen euskal kulturak dituen ezaugarriak, orain 50-60 urte aurrekusi ere ezin zitezkeen egin: nabarmenena agian globalizazioa da, kontzeptu horren esangura eta aurpegi guztiekin. Aipatu epe tarte horretan, irakurketa bakarreko mundu *ia itxi* batean bizi izatetik guztiz bestelako egoera eta moldeetara etorri gara. Hona hemen adierazle batzuk:

- migrazio-fenomeno berrituek pertsonen arteko harreman bereziak ekarri dituzte, errealak eta birtualak

- emakumeok gizarte bizitzara ematen ari garen jauzia nabarmena da. Eta honekin batera, gizonen jardun-moldeen egokitze prozesuak ere hedatzen doaz ia-ia neurri berean

- eleaniztasunari aitortzen diogun balio erantsiak elebakartasunaren desagertze soziala ekarri du. Halere, aitortze horrek ere ez ditu beti euskararen aldeko jarrerak elikatu


- kulturazko produktu eta zerbitzuen kontsumoa zeharo aldatu da, agerpen eremu eta espazioekin batera

- kultur banalizazioa deitzen dena ere fenomeno berria dugu bere ondorio guztiekin.

Ezinbestean bada, euskal kulturak gutxienez hiru zutabe uztartuz beharko luke egin etorkizunerako bidea: **historia** (euskal hizkuntza, ohiturak, kulturaren funtsezko estetika...), **oraina** (inguruko kulturekin harremanak, gizartearen aniztasuna, kalitate eta berrikuntza adierazleak...) eta **etorkizuna**

(nazioarteko komunitatean partaidetza, Europako beste erkidegoekin harreman-ereduak, herri erakundeen eta giza-ekimenaren partekatze-eginkizunak,...). Helburua bikoitza da: euskal kulturaren oroimena ikertu, eguneratu eta herritarren eskura jartzea eta, aldi berean, diskurtsoa etengabe eguneratu eta egokitzea.

Halere, kultur-oroimen bakoitzak bere historia du; belaunaldi bakoitzak jasotzen duenak eginak ditu aurretik hainbat bide, batzuk zabalak eta erosoak eta besteak zehar-kale eta bide zidorrak. Eta esan beharra dago euskal kulturarena, ukazioaren historia dela: urte askotako oroimen ukatua.



Urte luzeetan ez dugu jakin zer izanik garen. Oroimen-katea ikasteko, jarraitzeko eta eguneratzen joateko aukera belaunaldi oso biri moztu zigun diktadura luzeak. Pertsonaia eta erakunde batzuk bakarrik aipatzearren, Euskal Pizkundea, Lurgorri, Lore Jokoak, Azkue, Etchepare, Lauaxeta, Lizardi, Bizenta Mogel, Kirikiño, Elizalde, Campion, Ibiñagabeitia, Tene Mujika, Maria Zabala, Uztapide, Urretxindorra, Axular, eta beste hainbesteren ganorazko berririk ez dugu ezagutzerik izan; ez ziren agertzen gure testu-liburuetan ezta irakasleen azalpenetan ere. Ez ziren gure baitan bizi izan. Uste izan genuen zerotik abiatuta hasi behar genuela, jakin barik gure aurretik beste asko izan zirelako ginela gu.

Testu liburuak eta irakasleak aipatu dituzten zeren euskal hezkuntzan ere, izan genuen aurrekaririk. Baina ez genekien: ez genekien

ehunka emakume izan zirenik, 1922an sortutako Emakume Abertzale Batza tarteko, ikas-metodologia aurreratuenak aztertu eta euskaldunduz irakaskuntzan aritu zirenik. Ez genekien lehen Eusko Jaurlaritzak Euskal Unibertsitatea, *Eusko Irakastola Nagusia*, 1936ko urrian, gerra krudelaren erdian, sortu zuenik Medikuntza eta Erizain ikasketak abian jarritz.

Ez genuen izan aukerarik, gure aurrekoek egindako lana aitortu eta bertatik abiatzeko. Batzuk, ez genekielako edo behar beste arduratu ez ginelako ezagutzeaz eta, beste batzuk, aurreko guztiarekin moztea ebatzia zutelako. Batzuk eta besteok ez dugu oraindik zor hori kitatu.

Kezka hauetatik sortua da Sabino Arana Elkargoak eta Bilbao 700 III. Millennium Fundazioak elkarlanean burutu genuen *Euskal Kulturaren Oroimena* mintegia iazko urrian. HERMES aldizkariaren ale honetako hurrengo lerroetan jaso ditugu jardunaldi horietan landu eta eztabaidara eramandako ponentziak.

Elkarlana diot, atomizazioa baita gure arazorik larrienetakoa inoiz baino gehiago elkarlanaren beharra dugunean eskuarte dugun gai honetan aurrera egiteko. Bistan da, euskal kultura ez dela mundura jaio gurekin. Ezta trantsizio demokratikoarekin ere.

Zorionez, azken hamarkadan oroimen historikoaren berreskurapenaren zuzeneko lekukoak ari gara izaten: ehunka hobi ireki dira eta euren senideei itzuli zaizkie hildako maitteen hainbat gorpuzkin; ikertzaileentzat ere hamaika artxibo ireki dira agerian utzi dutenak urte anitzek ezkutaturik egon diren txostenak.

Testuinguru horretan kokatzen dugu euskal kulturaren oroimena eta bere berreskurapena: honez gero, ikasi dugu XXI. mendea ohitura demokratikoak sakonduz eraiki behar duguna, ezagutu behar dugula zer izan ginen XX. mendean eta argira ekartzeko erantzunkizuna dugula ia mende batez ilunpean egon dena.

Euskal kulturaz, sorkuntzaz eta era guztietako kultur adierazpidez kezkatuta gauden guztiok badakigu XX. mendean lehen hereanean margolari eta eskultore mordo eder bat izan genuela; euskal zinema bat izan zenaren susmoa ere badakigu, dakigun bezalaxe

gure idazleak harremanetan ibili zirela beste herri eta nazio batzuetako egile ospetsuekin, musikariak eta kultur mezenasak izan genituela... baina horiei guztiei buruz titular bat edo beste salbu, deus gutxi dakigu, edo batere ez.

“Katea ez da eten” esateko ohitura dugu, oroimenaren balioa azpimarratzeko. Halere, ni ez nago seguru gauzak horrela direnik kultur esparruan: funtsean, apenas daukagu gure kulturaren oroimenik, eta nahitaezkoa dugu berreskuratzea.

Testuinguru horretan, esanahi betea hartzen du *Euskal Kulturaren Oroimena* mintegiak. Lagun izan ditugu kultur adierazpidean adituak diren pertsona ospetsu zenbait (zinema, margolaritza-eskultura, literatura-bertsolaritza, kultur mugimenduak, e.a.), eta haiei esker hurbildu gara gure oroimenaren aktore eta protagonistengana.

Elkarrekin partekatu ditugun gogoeta eta eztabaiden muina jaso dugu *Hermes*-en ale honetan. Gaur *kultur oroimen* deitzen dugun hori eraiki zutenengana egin nahi izan dugu bidea, jakinik bizitza baten historiak beti eskatzen dituela testuinguru eta azterketa bereziak.

Bilbao 700 III. Millennium Fundazioaren goiburua *Bilbao, oroimena eta etorkizuna* da. Oroimena, ezagutzeko, omentzeko eta, batez ere, ikasteko; oroimena, hitz batez, Euskal Herriko bizitza kulturalarekiko konpromisotik eraikitzen hasteko etorkizun kolektiboa, kohezioa eta aniztasuna oinarritzat izango dituen. *Asmoz eta jakitez*.

Son tiempos de recuperación de la memoria. Somos cada vez más conscientes de que la vida social y política, la educación creativa, la cultura vasca en sus diversas expresiones, no nacieron con nosotros; tampoco con la transición democrática. Si nos entendemos a nosotros mismos como miembros de una comunidad cultural es seguramente porque, aun sin saberlo, seguimos el rastro de quienes nos precedieron. Hacer consciente esa intuición es imprescindible para seguir avanzando cabalmente hacia el futuro.

A lo largo de más de una década, estamos siendo testigos activos de la recuperación

de la memoria histórica: cientos de fosas han sido abiertas y recuperados para sus familiares los restos de sus seres queridos; se han puesto a disposición de los investigadores un buen número de archivos que dan cuenta de lo que permaneció oculto durante años. Sabemos que el siglo XXI ha de ser, en cultura, lo que construyamos con el conocimiento cabal de lo que fuimos en el siglo XX.

Las personas a las que nos ocupa –y nos preocupa– la cultura vasca, la creación y las diversas manifestaciones culturales (kultur kezka, decimos en euskera) sabemos que hubo un buen número de pintores y escultores comprometidos con lo vasco en el primer tercio de siglo; que existió quizás un cine vasco; que nuestros escritores se relacionaron con prestigiosos intelectuales europeos y americanos, que hubo músicos y compositores que recorrieron el mundo mostrando su arte, que existió un significativo mecenazgo cultural....., pero, más allá de titulares, sabemos muy poco o nada de todo esto.

Con frecuencia decimos en euskera “Katea ez da eten” para referirnos, precisamente, al valor de la memoria, pero no estoy segura de que esto sea cierto en el ámbito de la cultura: apenas tenemos memoria de ella. Y es urgente recuperarla.

En este contexto adquiere su sentido el seminario *Memoria de la Cultura Vasca* nacido de la colaboración entre las fundaciones Sabino Arana y Bilbao 700 III. Millennium. Nos han acompañado destacadas personas expertas en cine, pintura-escultura, literatura -bertsolaritza, movimientos culturales, etc. y nos han acercado algunos protagonistas de nuestra memoria cultural.

Las reflexiones y debates compartidos se recogen, básicamente, en este número de *Hermes*: hemos querido ahondar en el conocimiento de lo que fuimos, de quienes construyeron esa memoria, sabiendo que las historias de vida exigen siempre un contexto y un análisis propios.

Bilbao memoria y futuro es el lema de la Fundación Bilbao 700. Memoria para conocer, para honrar y, sobre todo, para aprender. Memoria, en definitiva, para ir construyendo, desde el compromiso con quienes nos precedieron, una comunidad cultural digna de tal nombre.

Hemos viajado desde el pasado hacia el futuro siguiendo la sentencia del genial Oteiza, “*quien innova, quien crea algo nuevo, hace como los remeros vascos, avanzando hacia adelante, pero remando de espaldas, mirando hacia atrás, hacia el pasado, para poder así reinventar sus claves*”.